LEGAZPIKO UDALA

Gogoratu kontzertuaz ahalik eta gehien gozatzea nahi dugula, beraz, kontuan izan xehetasun logistiko horiek. Laster ikusiko dugu elkar kiroldegian jaialdi ikaragarriaz gozatzeko!

1. Sartzeko ordua:

Jaialdia 19:30ean hasiko da eta kiroldegiko ateak 19:00etan irekiko dira. Aldez aurretik iristea gomendatzen dizugu, eragozpenik gerta ez dadin.

2. Sarbide-puntua:

Kiroldegirako sarrera kiroldegiaren eta futbol zelaiaren artean dagoen bidetik egingo da.

Bi ilara gaituko dira modu ordenatuan sartzeko:

1. ilara: Kantxako eserlekuetarako (sarrera horiak).
2. ilara: Harmailetako eserlekuetarako (sarrera txuriak).

3. Nola abiatu kiroldedegira:

Gomendagarria da kiroldegira oinez edo Junetorri erabiliz joatea.

Kontuan izan ibilgailuen sarbidea mugatua izango dela:

GI-2630 errepideko Oñatiko norabidea itxita egongo da (Bikuña industrialdeko bidetik egin beharko da).

Jaialdira joango diren pertsonei utziko dieten autoei bakarrik utziko zaie pasatzen, eta une bateko geldialdia baimenduko da.

4. Junetorriko zerbitzu gehigarria:

Hirigunera itzultzea errazteko, Junetorriko zerbitzu gehigarri bat gehitu da.

Zerbitzu honen ohiko ordutegia honako esteka honetan kontsulta dezakezu:

Junetorriko ordutegiak

Zerbitzu gehigarriaren ibilbidea eta ordutegiak:

- Junetorria 21:04tan Aizkorri 24-ko geldiunean egongo da jaialdiko jendearen zain.
- Behin ibilgailua beteta, bere ohiko buelta egingo du 21:50 inguru amaiturik Zerbitzua.

5. Aparkalekuak:

Zorrotz enpresaren eta Bikuñako biribilgunearen artean espaloiaren gainean aparkatu ahal izango da.

Legazpiko Udala● IFK: P2005500J ● Euskal Herria plaza,1 - 20230 LEGAZPI ● 943 73 70 30 ● 943 73 72 00 ● legazpi@legazpi.eus ● www.legazpi.eus

Larrialdi- eta ebakuazio-kasuetan nola jardun	Actuación en caso de emergencia y evacuación:
▪ Utzi eraikina alerta-seinale akustikoa entzuten duzunean. ▪ Bete ebakuazio-arduradunen jarraibideak. ▪ Erabili hurbilen dagoen ebakuazio-bidea edo larrialdietako irteera. ▪ Joan ezarritako elkartze-puntura. ▪ Mantendu lasaitasuna, ez korrika egin. ▪ Zerbait ahaztu baduzu, ez itzuli horren bila. ▪ Ez erabili igogailuak. ▪ Egin kasu seinaleei. ▪ Ez hartu arriskurik.	▪ Abandona el edificio cuando escuches la señal acústica de alerta. ▪ Sigue las instrucciones de los responsables de evacuación. ▪ Utiliza la vía de evacuación o salida de emergencia más próxima. ▪ Dirígete hacia el punto de reunión establecido. ▪ Mantén la calma, no corras. ▪ Si has olvidado algo, no vuelvas a recogerlo. ▪ No utilices los ascensores. ▪ Presta atención a la señalización. ▪ No asumas riesgos.

Alarma pultsadorea / Pulsador de alarma



Elkartze puntua / Punto de encuentro

